

# SUSTAPENAREN OINARRIAK

## OSASUN-ASEGURUAK

Udazken honetan zaindu egingo zara, seguru  
2025eko urria – 2026ko urtarrila

---

Agiri honek UDAZKEN HONETAN ZAINDU EGINGO ZARA, SEGURU osasun-aseguruen kanpainako sustapenen baldintzak bildu eta zehazten ditu. Aseguruok, konpainiaren oinarrizko arauak ez ezik, kanpainaren baldintzak ere bete beharko dituzte.

### 1.- Kanpainaren datak

Sustapena 2025eko urriaren 1ean hasi eta 2026ko urtarrilaren 31n amaituko da. Hala ere, eten edo bertan behera utzi ahal izango da edonoiz, horretarako bidezko arrazoirik bada. Sustapenaz baliatu ahal izateko, 2025eko urriaren 1etik 2026ko urtarrilaren 31ra bitartean kontratatatu behar dira polizak (efektu-datak, berriz, 2026ko otsailaren 28ra arteko muga izango du).

### 2.- Eskaintza eta produktuen baldintzak

#### 2.1. Aurrekontuko 5 aire-frijigailu zozkatuko dira hilean

2025eko urriaren 1etik 2026ko urtarrilaren 31ra bitartean Sanitasen Osasun Aseguru baten aurrekontua eskatzen duten pertsona guztiek izango dute 5 aire-frijigailuren —Cosori Pro Chef Edition 4,7 l— hilean behingo zozketan parte hartzeko eskubidea. Zozketa azaroko, abenduko, urtarrileko eta otsaileko hirugarren astelehenean egingo da, aurreko hilean aurrekontua eskatu dutenen artean.

#### 2.2. 100 € itzuliko dira kontratazio bakoitzeko

Bezeroek abantaila hauek izango dituzte, kanpainaren indarraldian horren baldintzak betetzen dituzten kanpainako adarretako OSASUN-polizaren bat kontratatuz gero:

100 € jasotzea, 2025eko urriaren 1etik 2026ko urtarrilaren 31ra bitartean (efektu-datak 2026ko otsailaren 28ra arteko muga izango du) kontratatutako adar hauetako Osasun Aseguru berri bakoitzagatik:

- SANITAS MÁS SALUD Osasun Asegurua: aseguru berria kontratatzeagatik, koordinketa-modalitate guztietan, gutxieneko primarik gabe.
- SANITAS MÁS SALUD FAMILIAS Osasun Asegurua: aseguru berria kontratatzeagatik, koordinketa-modalitate guztietan, gutxieneko primarik gabe.
- SANITAS PROFESIONALES Osasun Asegurua: aseguru berria kontratatzeagatik, koordinketa-modalitate guztietan, gutxieneko primarik gabe.

### 3.- Kanpainaren beste baldintza batzuk

- Arriskuak konpainiaren kontratazio-arauen barruan hartuko dira.
- Polizak urtebetekoa izan beharko du, eta berriztagarria.
- Ordainketak LABORAL Kutxan egon beharko du helbideratuta.
- Abantailak lortzeko eskubidea ematen duen poliza ordaindu ezean, aseguru-konpainiak edo dagokion entitateak eskubidea izango du bezeroaren kontuan egindako ordainketa berreskuratzeko.
- LABORAL Kutxaren kanal guztien bidez kontratatzen diren aseguruetarako balio du eskaintzak.
- Eskaintza hau bateragarria da Sanitasen gainerako kanpaineekin.
- Kontratutako aseguruaren ordainagiria kobratu ondorengo 90 egunetan egingo dira diru-itzultzeak.
- Sustapenaren muga: 300 eragiketa.

### 4.- Sustatzailea

Caja Laboral Bancaseguros SLU, banka-aseguruetao operadore lotetsia. Administrazio Erregistro Berezian inskribatuta dago, OV-0072 klabearekin. Arriskuaren aseguratzailerak: Sanitas SA. Erantzukizun zibila eta finantza-ahalmena estalita ditu, indarrean dagoen legeriaren arabera. Kontsultatu aseguratzailerak hemen: [www.aseguruak.laboralkutxa.eus](http://www.aseguruak.laboralkutxa.eus).

### 5.- Aplikazio-eremua

Kanal hauek erabiliz kontratatutako aseguruetao aplikatuko da kanpaina: [www.laboralkutxa.eus](http://www.laboralkutxa.eus) webgunea, aseguruetao espezializatutako telefono bidezko arreta-zentroa (901 100 200) eta Caja Laboral Popularren banka-aseguruetao operadore lotetsia den Caja Laboral Popularren banaketa-sarea —Bitartekarien Erregistro Administrazio Berezian dago inskribatuta, C572F20022109 zenbakiarekin—.